



LAN-ESKAITZA

Enplegu eta Tokiko Garapen Planaren (ETGP) Teknikaria

1.- Lanpostuaren izena

ETGP – Enplegu eta Tokiko Garapen Planaren Teknikaria

2.- Kontratazio-erregimena (administrazio publikoa)

- **Administrazio publikoko lanpostua** (deialdiaren oinarrien arabera: bitartekoa / aldi baterakoa / interinitatea / lan-kontratua)
- **Lanaldia:** %100 (lehentasunez)
- **Lanlekua:** Debagoiena (udalerrri eta eskualde mailako jarduera)
- **Inplikaturako erakundeak:** Mankomunitatea, udalak, eskualdeko eragileak, hezkuntza eta prestakuntza ekosistema, enpresa-sarea, gizarte-eragileak, eta enpleguarekin lotutako sare publikoak.
- **Baldintza ekonomikoak:** 3.215,97 (hilabeteko gordina)

3.- Lanpostuaren helburua

Debagoieneko **Enplegu eta Tokiko Garapen Plana (ETGP)** diseinatu, idatzi, dinamizatu eta instituzionalki bideratzea, honako faseak modu koordinatuan garatuz:

1) Diagnostikoa, 2) Definizio estrategikoa, 3) Plana idatzi eta onartzea eta oinarriak ezartzea 4) Planaren inplementazioa eta 5) Ebaluazioa.

4.- Profila, funtzioak eta erantzukizunak (lanaren edukia)

Profil teknikoa, analisi, errazte eta idazketa estrategikorako gaitasuna duena. Eragileak koordinatzeko eta erakundeen onarpena prestatzeko kaudimenarekin. Lurrealde prospektiba eta toki garapeneko project manager enpleguaren arloko aholkularitza gaitasuna.

Garatuko dituen lanak

A) 1. FASEA – Diagnostikoa eta analisisia

- Informazio iturriak identifikatzea eta sistematizatzea (datu sozioekonomikoak, enplegutasa, sektoreak, demografia, etab.)
- Eskualdeko/udalerrietako **eragile gakoaren identifikazioa eta mapa** egitea (enpresak, prestakuntza, Lanbide, elkarteak, etab.)
- Informazio bilketa eta tratamendua: analisiak, karakterizazioak, joerak eta erronkak
- Diagnostiko txostena idatzi eta aurkeztea: baliabideak, aukerak, beharrak eta erronkak jasota
- Eragileekin kontraste saioak egitea eta diagnostikoa baliozkotzea

B) 2. FASEA – Definizio estrategikoa

- Erronkak kontrastatu, hautatu eta lehenestea (metodologia parte-hartzailea erabiliz)
- ETGPren misioa, ikuspegia eta balioak definitzea
- Epe labur, ertain eta luzerako helburuak formulatzea (metak eta adierazleekin)
- Estrategiak diseinatzea: prestakuntza, enplegarritasuna, ekintzailtza, enpresa-ehunaren lehiakortasuna, azpiegiturak eta ekosistemak
- Ekintza eta programen lehen identifikazioa egitea
- Arrakasta-adierazleak (KPIak) definitzea

C) 3. FASEA – Plana idaztea eta onarpena

- ETGP dokumentu ofiziala idaztea: helburuak, estrategiak, ekintzak, adierazleak, baliabideak, eta abar
- Hasierako aurrekontu planteamendua egitea eta finantzaketa-iturriak proposatzea
- Planaren aurkezpena eta onarpen instituzionala bideratzea (udal/eskualde organoetan)
- Komunikazio plana eta eragileen dinamizazio eredu diseinatzea
- Gobernantza eta kudeaketa eredu proposatzea (urteko kudeaketa planak barne)
- Jarraipen eta ebaluazio sistematika definitzea (2030era arteko ikuspegia, aginte-koadroa eta ODS lotura)

5) Derrigorrezko baldintzak (betebeharrekoak)

A) Titulazioa (nahitaezkoa)

Gradua, unibertsitateko diplomatura, ingeniari teknikoa, arkitekto teknikoa edo baliokidea.

B) Euskara (nahitaezkoa)

- **Euskara: C2 / 4. Hizkuntza Eskakizuna (Ez badago, 3HE onartuko da)**

C) Esperientzia (nahitaezkoa)

- Gutxienez **urte bateko esperientzia** enplegu, garapen lokal/territorial edo plangintza estrategikoko proiektuetan, administrazio publikoan edo antzeko erakundeetan.

D) Gaitasun teknikoak

- Diagnostiko sozioekonomikoa egiteko gaitasuna (datuen bilketa, analisia, interpretazioa)
- Dokumentu estrategikoen idazketa eta egituraketa (planak, txostenak, memoriak)
- Eragileekin lan egitea: koordinazioa, dinamizazioa eta kontraste-prozesuak
- KPI eta jarraipen logika ulertzea (adierazleak, aginte-koadroa, ebaluazioa)

E) Harreman gaitasunak

1. Eragileen eta aliantzen kudeaketa

- Eragileak mapeatu, parte-hartzea aktibatu eta inplikazioari eutsi
- Entzute aktiboa eta negoziazioa
(eragileen mapaketa + diagnostikoaren balioztatzea)

2. Parte hartzeko prozesuak erraztea

- Kontraste, leheneste eta baliozkotze saioak gidatzeko gaitasuna
- Metodologia parte-hartzaileak, erronkak eta estrategiak definitzeko
(erronkak alderatu, hautatu eta lehenetsi)

3. Lidergo teknikoa testuinguru politikoan

- Hauen artean "itzultzen" jakitea:
 - Hizkuntza teknikoa (datuak eta ebidentzia)
 - Erakunde hizkuntza (erabakiak, onarpena, osoko bilkurak, etab.)
- Denboren, itxaropenen eta planaren bertsioen kudeaketa (aurkezpena eta onarpena)

4. Proiektuen antolaketa eta zuzendaritza

- Zereginen planifikazioa, egutegia eta koordinazioa
- Entregagaien kontrola eta jarraipena

6) Baloraziozko merezimenduak

A) Prestakuntza osagarria

- Garapen lokal/territorialeko masterra edo espezializazioa
- Politika publikoetako masterra / kudeaketa publikoko prestakuntza
- Ebaluazioa, adierazle-sistemak edo "project management"eko prestakuntza
- Parte-hartze eta fasilazio metodologietan prestakuntza

B) Esperientzia espezifikoa

- ETGP, plan estrategikoak edo antzeko dokumentuak idatzi izana
- Eragile mahaiak dinamizatu izana (enpresak, prestakuntza zentroak, elkarteak...)
- Finantzaketa publikoaren ezagutza (dirulaguntzak, FSE+, antzeko programak)
- Gobernantza ereduak eta jarraipen-sistemak definitu izana

C) Tresnak eta gaitasun digitala

- Excel/Sheets maila aurreratua
- Aurkezpenak (PowerPoint/Slides) eta dokumentazio profesionala
- Datuen bistaratzea (Power BI edo antzekoa) (*baloragarria*)

D) Hizkuntzak

- Gaztelania maila altua (idazketa formala)
- Ingelesa (*baloragarria*)

7) Hautaketa-prozesua (administrazio publikoan egokitua)

Hautaketa-prozesuak, deialdiaren oinarrien arabera, honako faseak izan ditzake:

1. Merezimenduen balorazioa (lehiaketa)
2. Proba teknikoak (oposizioa)
3. Elkarrizketa egituratua / gaitasun-proba (balorazio osagarria)

8) Ebaluazio-irizpideak

A) Merezimenduak – %20

- Esperientzia egiaztatua (enplegu/garapen lokala/plangintza): %25
- Prestakuntza osagarria egiaztatua: %10
- Tresna digitalak eta bestelako hizkuntzak: %5

B) Proba teknikoak – %55

Proba praktikoa edo txosten laburra (2-3 ordu edo etxeko ariketa mugatua), adibidez:

- Diagnostiko labur batetik **erronkak identifikatu eta lehenestea**
- Helburu estrategikoak + ekintza proposamena + KPI batzuk definitzea
- Gobernantza eta jarraipen logika laburbiltzea
(faseen logikarekin koherentea)

C) Elkarrizketa – %25

- Koordinazio eta dinamizazio gaitasuna
- Idazketa eta komunikazio argitasuna
- Administrazio publikoaren testuinguruan lan egiteko egokitasuna
- Lidergo teknikoak (politika/eragile anitzekin)

9) Dokumentazioa (aurkeztu beharrekoa)

- NAN / identifikazioa
- Titulu akademikoa (edo baliokidea)
- Euskararen 4PL egiaztagiria (Horren ezean 3HE egiaztagiria)
- Lan-bizitza eta/edo esperientzia egiaztatzen duten ziurtagiriak
- Curriculum Vitae (Europass edo antzekoa)
- Prestakuntza osagarrien egiaztagiria
- Administrazioak eskatzen dituen gainerako agiriak

10) Beste alderdi batzuk

Lanpostua betetzeko **mugikortasuna** (Debagoiena barruan) baloratuko da

- Interes berezia: **lankidetzak publiko-pribatua**, prestakuntza-ekosistema, eta enplegu politikak

11) Azterketan parte hartzeko tasak kobratuko dira

LANBIDE bidez egiten den hautaketa prozesua gainditzen duten hautagaiek, dagozkion tasak ordaindu beharko dituzte hautaketa prozesuaren hurrengo ariketetan parte hartzeko. Informazio gehigarria, www.debagoiena.eus web orrialdean argitaratuko da, azterketaren inguruko informazioarekin batera.